



Arartekoaren 2022R-292-22 Ebazpena, 2022ko apirilaren 19koa. Horren bidez, Energiaren Euskal Erakundeari gomendatzen zaio ezeztatu dezala Ibilgailuen 2021 Renove Planaren barruan ibilgailu bat erosteko laguntza-eskaera baten ukapena.

Aurrekariak

- Pertsona batek kexa aurkeztu du Arartekoaren aurrean, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) Ibilgailuen 2021 Renove Plana (PAVEA) programaren baitan ibilgailu bat erosteko eskaturiko laguntza ukatu zaiolako.

Zehazki, kexagileak azaldu du 2021eko ekainaren 17an laguntza-programarako eskaera aurkeztu zuela, PAVEA 2021 espediente-zenbakiarekin, oinarrietan eskatutako dokumentazio guztia erantsita.

Bere kexan azaltzen duenez, 2021eko uztailaren 28an EEEK laguntza ezetsi zuen, uste baitzuen bidalitako dokumentazioan ez zetozeela bat laguntzaren eskatzailea eta baja emandako ibilgailuaren titularra.

2021ko abuztuaren 4an, kexagileak errekurtsio bat aurkeztu zuen, ezespen hori berrikusteko eskatuz. Kexagileak alegatu zuen datuen desadostasun hori izan zela E EEk Trafiko Zuzendaritza Nagusitik (DGT) lortutako dokumentua osatu gabe zegoelako. Nahiz eta egia izan baja emandako ibilgailuaren titularra, DGTren dokumentuan agertzen zena, beste pertsona bat zela, zehazki senide bat, ibilgailuaren jabetza biek partekatzen zutelako gertatu zen hori.

Errekurtsioa izapidetzean, 2021eko urriaren 26an, EEEK kexagileari eskatu zion 10 eguneko epean aurkez zezala DGTren ziurtagiri bat, ibilgailuaren titularkidetasuna bermatzen zuena.

Kexagileak Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiria aurkeztu zuen, txatartutako ibilgailuaren titularkidetasuna egiaztatuz, gaitutako 10 eguneko epetik kanpo.





EEEri bere garaian jakinarazi zionez, posta elektronikoko baten bidez, atzerapenaren arrazoia DGTren hitzordu presentzialen kudeaketan izandako atzerapena izan zen. EEEK 2021eko urriaren 26an eskatutako argibidearen ondoren, hurrengo egunean, 2021eko urriaren 27an, hitzordua eskatu zion DGTri. Hala ere, DGTK ezin izan zuen hitzordu hori aintzat hartu 10 egun baliodunak igaro arte. Nolanahi ere, inguruabar hori egiaztatzen zuen DGTren ziurtagiria jaso ondoren, EEEri bidali zion posta elektronikoz, berraztertze errekurtsoaren azken balorazioa egin aurretik.

Dena dela, 2021eko urtarrilaren 3an, EEEK ezespina errepikatuz ebatzi zuen errekurtsua, baja emandako ibilgailuaren titulartasunaren baldintza egiaztatu gabe zegoela iritzita.

- Kexagileak Arartekoarengana jo zuen, ezespenearekin ados ez zegoela adierazteko; izan ere, bai eskaera egiteko unean, bai errekurtsu-bidean errekerimendua egin zitzaionean, behar bezala egiaztatu zuen ibilgailuaren jabea zela, eta txatar bihurtzeko baja eman zitzaiola.

- Bere kexa izapidetzeko onartu ostean, 2022ko otsailaren 21ean, Arartekoak informazioa eskatu zion EEEari laguntza izapidetzeko jarraitutako prozedurari buruz eta ezezpenaren arrazoiei buruz.

- Eskaerari erantzunez, 2022ko martxoaren 3an, EEEK informazioa bidali zion Arartekoari laguntza izapidetzeko kasu honetan jarraitutako prozedurari buruz.

Txosten horretan, EEEK honako hau adierazten du horri buruz:

EEE Energiaren Euskal Erakundearen Ibilgailuen Renove Programaren Deialdiaren (2021eko maiatzaren 31n, EHAAn, 105 zenbakian argitaratua) 4. Oinarrian, berariaz hauxe ezartzen da:

“Laguntzen programa honen kontura diruz lagunduko diren jarduerak 4. oinarri honetan zehazten dira (...)

[...] Txatarra bihurtzea:

Betekizun honetarako, erabiltzen ari den ibilgailuari baja eman behar zaio, nahitaez, ondoren txatarra bihurtzeko, honako baldintza hauek kontuan hartuz: [...] Laguntzaren eskatzailea ibilgailuaren jabea izatea 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik. (...)”



- *EEE atxiki da eta altan eman da Euskadiko Administrazioen Elkarreragingarritasun eta Segurtasun Nodoan (NISAE); sistema horri esker, eskatutako ibilgailuen zirkulazio-baimenari lotutako datuak lor ditzake. Datu horiek erkatu egin behar dira, laguntza-programaren oinarrietan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.*

- *Laguntza-espeditate honetan, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez egiaztatu zen erositako ibilgailuaren titular gisa ageri zen IFZ eta laguntza-eskatzailearena, A, bat zetozela. Hala ere, txatar bihurtutako ibilgailuaren zirkulazio-baimenari dagokionez, erantzun bat jaso zen, eta bertan egiaztatu zen ibilgailuaren titular gisa ageri zen IFZ ez zetorrela bat eskatzailearenarekin.*

Hori ikusita, 2021eko uztailaren 28an, laguntza-eskaera ukatzeko ebazpena eman zen, arrazoi honengatik: "Erositako ibilgailuaren titularra eta txatar bihurtutako ibilgailuarena ez datoz bat".

- *A jaunak berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2021eko abuztuaren 4an.*

Berraztertze errekurtsoan, eskatzaileak alegatzen du txatartutako ibilgailuak bi titular zituela, eta titular horietako bat zela. Hala ere, hori egiaztatze, zirkulazio-baimen baten irudia aurkeztu du, honako titular honekin:

"APellidos o Razón Social: B"

NOMBRE: B Y OTRO"

Aurkeztutako dokumentutik ondoriozta badaiteke ere txatartutako ibilgailuaren titularra «B» dela eta beste titular bat egon litekeela, dokumentu horrek ez du egiaztatzen beste titularra bat datorrenik laguntzaren eskatzailearekin (A), ezta 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik ere titularra denik.

Bestalde, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren ibilgailuaren behin betiko bajari buruzko txosten baten irudia aurkezten da. Txosten horretan B jauna bakarrik ageri da titular gisa.

Azkenik, "Certificado de destrucción del vehículo al final de su vida útil" delakoaren irudia erantsi da. Ziurtagiri horretan titular gisa ageri dira "B y A", eta IFZ bakarra agertzen da, bat ez datorrena laguntzaren eskatzailearekin.

Eskatzailea ibilgailuaren titular gisa identifikatzen duen informazio osoa jasota ez dagoenez, eta deskribatutako azken dokumentua DGTren txostena ez izanik, errekerimendu bat bidali zitzaion A jaunari 2021eko urriaren 26an, eta hamar



egun balioduneko epe gehigarria eman zitzaion, honela idatzita: "Errekurtsogileak alegatu du ordeztutako ibilgailuak bi titular dituela. Horri dagokionez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren (DGT) txosten bat aurkezteko eskatzen da, egiaztatzeko A izan dela X matrikuladun ibilgailuaren titularra, eta zein egunetan izan den titulartasun hori."

Jakinarazpen elektronikoa onartuta agertzen da errekerimendua egin zen egun berean, eta A jaunak ez zuen alegaziorik edo dokumentazio gehigarririk aurkeztu horretarako emandako epean.

Horri dagokionez, laguntza lortzeko Programaren Oinarrietan ezarritako gutxieneko baldintzak egiaztatu ez zirenez, 2022ko urtarrilaren 3an A jaunak aurkeztutako errekurtsua ezesteko ebazpena eman zen."

Kexa hori ikusita eta horren planteamendua eta EEEK emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak bidezkotzat jo du honako gogoeta hauek egitea:

Gogoetak

1.- Lehenik eta behin, aipatzekoak dira azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena) eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. Arau horietan ezartzen denez, administrazioaren laguntzak eta dirulaguntzak ordenamendu juridikoak arautzen dituen aurreikuspenetan eta publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioetan oinarritu behar dira.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.2 artikuluan ezartzen denaren arabera, dirulaguntzak eman aurretik, dirulaguntza ematen duen administrazio-organoak laguntzak emateko prozedura arautzen duten oinarrietan ezartzen diren eta aldi berean oinarri horien ardatz diren arauak onartu beharko ditu.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 51. artikuluan adierazten da laguntzak edo dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duten arauetan onuradunek laguntza edo dirulaguntza lortzeko bete beharreko baldintzak, epea eta horiek egiaztatzeko modua jaso behar direla.

2.- Administrazio publikoen dirulaguntzak diru-xedapen gisa definituta daude eta erabilera publikoko edo interes sozialeko jarduera bat sustatzeko da; helburu jakin bat bete behar duten pertsona publiko edo pribatuentzat egindakoa da.



Auzitegi Gorenak, jurisprudentzia-doktrina irmo batean, adierazi du sustapen-politikak diskrezionalak direla eta oinarrien aplikazioa arautua dagoela. 2018ko urtarrilaren 18ko epaian (RC 53/2017) Auzitegi Gorenak zer adierazi zuen: *"En primer lugar, el establecimiento de la subvención puede inscribirse en el ámbito de las potestades discrecionales de las Administraciones públicas, pero una vez que la subvención ha sido regulada normativamente termina la discrecionalidad y comienza la previsión reglada cuya aplicación escapa al puro voluntarismo de aquéllas. En segundo término, el otorgamiento de las subvenciones ha de estar determinado por el cumplimiento de las condiciones exigidas por la norma correspondiente, pues de lo contrario resultaría arbitraria y atentatoria al principio de seguridad jurídica. Por último, la subvención no responde a una "causa donandi", sino a la finalidad de intervenir en la actuación del beneficiario a través de unos condicionamientos o de un "modus", libremente aceptado por aquél. Por consiguiente, las cantidades otorgadas en concepto de subvención están vinculadas al cumplimiento de la actividad prevista. Se aprecia, pues, un carácter condicional en la subvención, en el sentido de que su otorgamiento se produce siempre bajo la condición resolutoria de que el beneficiario tenga un determinado comportamiento o realice una determinada actividad en los términos en que procede su concesión (SSTS 20 de junio, 12 de julio y 10 de octubre de 1997, 12 de enero y 5 de octubre de 1998, 15 de abril de 2002)."*

Horiek horrela, deialdiaren oinarriak edozein eskatzaile eta Administrazioa gidatzen dituzten arau lotesleak dira. Modu horretan, administrazioak zorrotz aplikatu behar du oinarrietan xedatutakoa, izan ere, oinarrietan ezarritako baldintzak ez betetzea nahikoa da dirulaguntza ez eskuratzeko.

Aipatu behar da baldintzak betetzeko zorroztasuna dirulaguntzen aurrekontu-partiden izaera mugatuan eta eskatzaile guztien arteko lehia- eta berdintasun-printzipioan oinarritzen dela.

Deialdian eska daitezkeen baldintza guztiak modu zintzo eta zehatzean betetzeko betebeharraren izaera arautua dirulaguntza-eskaera guztietara hedatu behar da, izan ere, eskatzaile bati bidegabe emateak gainerakoei eragingo bailieke eta, gainera, berdintasun-printzipioaren urratzea ekarriko luke.

Beraz, izaera arautuak berekin dakar, oinarrietan eskatzen diren betekizunak behar bezala egiaztatu ondoren eta aurrekontu-baldintzen barruan, administrazioak laguntza-eskaera baietsi behar duela, eta ez dela bidezkoa gerora deialdian aurreikusten ez diren betekizunak sartzea.



3.- Kasu honetan, aipatutako lege-aurreikuspenekin batera, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiak 2021eko maiatzaren 14ko Ebazpenaren bidez ibilgailu eraginkor eta alternatiboetan inbertitzeko 2021eko laguntza-programarako onartutako deialdiaren oinarriak aplikatu behar dira.

Oinarrien laugarren puntuan adierazten den bezala, eskatzaileak txatar bihurtzeko erabiltzen duen ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatu behar du. Horrela, oinarriek bi baldintza eskatzen dituzte: batetik, laguntza-eskatzailea ibilgailuaren jabea izatea 2021eko urtarrilaren 1a baino lehenagotik, eta, bestetik, ibilgailua txatar bihurtzea oinarri hauek EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Betekizun horiek egiaztatzeko, oinarriek ezartzen dute bi dokumentu erantsi beharko direla. Batetik, adierazi dute beharrezkoa dela honakoa aurkeztea: "Txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren zirkulazio-baimenaren kopia kautoa. Lehenengo matrikulazioaren data adierazi beharko da. Bestetik, aipatzen dute honakoa agiria erantsi behar dela: "Ibilgailuari behin betiko baja eman zaiola egiaztatzen duen ziurtagiria, Ibilgailuak Tratatzeko Baimendutako Zentroak (CAT) Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren izenean emana, edo bestela, dagokion Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren Ibilgailuen Erregistro Orokorren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena.

4. Eskabidea formalizatzeko eta baldintza horiek egiaztatzeko prozedurari dagokionez, oinarriek zehazten dute EEEK berak automatikoki egiaztatu beharko dituela zenbait dokumentu, hala nola eskatzailearen NANA, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak, errolda-ziurtagiria eta *"txatar bihurtutako ibilgailuaren eta erositako ibilgailuaren zirkulazio-baimenak."*

Aurreikuspen horiek izanik, oinarrietan jasotzen da interesdunek eskubidea dutela administrazio publikoen esku dauden dokumentuak aurkeztu beharrik ez izateko.

Eskubide hori zuzenean aplika daiteke administrazio-prozedura guztietan, eta urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan honakoa ezartzen du:

"Interesdunak ez daude beharturik administrazioaren batek eginak diren dokumentuen kopiak ekartzera, nahiz dokumentu horiek prozeduran aurkeztea nahitaezkoa izan nahiz aukerakoa izan, betiere interesdunak adostasuna adierazi badio dokumentu horiek kontsultatzeari edo ateratzeari. Kontsultatzea edo ateratzea interesdunek baimendu delako presuntzioa egingo da, ez badute prozeduran kontrakotasun espresua adierazi edo aplikatzekoa den lege bereziak ez badu agintzen adostasun espresua adierazi beharra dagoela.





Interesdunaren kontrakotasunik ezean, administrazio publikoek elektronikoki eskuratu beharko dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bitartez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo hartarako prestatutako beste sistema elektronikoren bati kontsulta eginez”

Horrela, eskubide horrek berekin dakar administrazio publiko jarduleak ofizioz kontsultatu edo bildu behar dituela agiri horiek, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu.

Lege-aurreikuspen hori aplikatuz, EEEK txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren zirkulazio-baimenari buruzko dokumentazioa eskatu zion DGTri.

Hala ere, DGTK EEERI emandako informazioan, txatar bihurtu beharreko ibilgailuaren zirkulazio-baimenak ez zuen berariaz jasotzen eskatzailea ibilgailuaren titular gisa. Nolanahi ere, informazioak ibilgailuaren titulartasun partekatuari egiten zion erreferentzia, titularkidearen identitatea zehaztu gabe, formularioa «eta beste bat» adieraztera mugatzen baitzen.

5.- Oinarrietan eska daitekeen eta Administrazioaren esku ez dagoen gainerako dokumentazioaz denaz bezainbatean, interesdunei dagokie aurkezpenaren zama.

Kasu horretan, oinarrietan jasota dago eskatzaileak ibilgailuaren behin betiko baja egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu behar duela. Horretarako, ibilgailuak tratatzeko zentro baimenduak Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren izenean emandako agiria bidal dezake, edo, bestela, dagokion Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren Ibilgailuen Erregistro Orokorraren txostena, behin betiko baja egiaztatzen duena.

Horretarako, eskabidearekin batera, ibilgailua bizitza baliagarriaren amaieran suntsitu izanaren ziurtagiria aurkeztu zuen kexagileak.

Ibilgailuak tratatzeko zentro baimenduak emandako agiri horrek egiaztatzen zuen ibilgailua behin betiko baja emanda zegoela adierazitako epearen barruan.

Era berean, ziurtagiri horretan ibilgailuaren titularkideen datu pertsonalak agertzen ziren, "B" eta "A" eskatzaileenak barne. Hala ere, lehen titularraren IFZ bakarrik ageri zen.





6.- EEEren balorazioaren arabera, DGTk bidalitako lehen dokumentua ez zen nahikoa laguntzaren eskatzailearen eta baja emandako ibilgailuaren jabearen titulartasuna bat zetozela egiaztatzeko; izan ere, bigarren titular bat zegoela jasota bazegoen ere, dokumentuak ez zuen hura identifikatzeko beste datu gehigarririk jasotzen.

Kexagileak aurkeztutako bigarren dokumentuari dagokionez, EEEK ez zuen nahikotzat jo baldintza hori egiaztatu ahal izateko, ez baitzegoen jasota eskatzailearen informazio osoa, IFZ ibilgailuaren titular gisa identifikatzen zuena, eta ez zen DGTren txosten bat.

Hori dela eta, EEEK laguntza ukatu zuen, ebazpenean ondorioztatu baitzuen eskatzaileak ez zuela berariaz egiaztatu bajako ibilgailuaren titulartasuna eta eskatzailea bat zetozenik.

7.- Ebazpen ukatzaile horri dagokionez, Arartekoak uste du honako gai hauek aitortu litezkeela.

Izan ere, kexagileak, bere betebeharra arduraz betez, EEEK Ibilgailuen 2021 Renove Planeko laguntza eskuratzeko oinarrietan eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu zuen.

Bestalde, ibilgailuaren titulartasunari buruzko datuak egiaztatu ez izanaren arrazoia izan zen Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak emandako zirkulazio-baimenean ez zirela sartu jabeakideen datu pertsonalak (lehen jabeakidearen izena eta IFZ bakarrik erantsi baitziren). Horrela, bigarren titularraren IFZren datua ez egotea ez zen eskatzaileari egotz zekiokkeen hutsegitea edo akatsa izan.

Era berean, laguntza eskatzeko prozeduran, eskatzaileak egiaztatu zuen ibilgailuaren titularkidea zela; izan ere, ibilgailuaren baja egiaztatzeko EEEK eskatutako dokumentuak ibilgailuaren izena, lehen abizena eta bigarren abizenaren laburdura jasotzen zituen.

Horrela, erakunde honen iritziz, EEEK kontuan hartu behar zuen aurkeztutako ibilgailuaren baja-ziurtagiriak bigarren titular bat zegoela aitortzen zuela, eta haren identitatea bat zetorrela eskatzailearekin.

Are gehiago, Trafiko Zuzendaritza Nagusian jasotako dokumentazioari buruzko zalantzaren bat izanez gero, EEEK ofizioz eskatu behar izan zuen eskatutako dokumentazio gehigarria, DGTko Ibilgailuen Erregistroan ibilgailuaren titularkidea bat etortzeari buruz.





lido horretan, kontuan hartu beharko litzateke dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea, 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan aurreikusia, ez dela agortzen eskaera egiten den unean, baizik eta eskatu ahal izango litzatekeela laguntzak eskatzeko espedientearen izapide guztietan. Kasu horretan, administrazio jarduleak dokumentu osagarriak eskatu beharko lituzke, beste administrazio publiko batzuen esku dauden betekizunak behar bezala egiaztatzen direla bermatzeko, DGTren kasuan bezala.

Ondorioz, Arartekoak uste du EEEK onartu egin behar zuela laguntzaren eskatzaileak baja emandako ibilgailuaren titulartasuna egiaztatu izana, bere datuekin bidalitako baja-ziurtagiriaren bidez, edo, bestela, ofizioz eskatu behar ziola DGTri dokumentazio osagarria, datuen bat-etortzea ziurtatzeko.

8.- Azkenik, garrantzitsua da adieraztea kexagileak, laguntza ezestearekin batera aurkeztutako errekurtsorearen fasean, Trafiko Zuzendaritzaren ziurtagiri bat erantsi zuela, baja emandako ibilgailuaren titulartasuna bat zetorrela egiaztatzen zuela.

Kasu horretan, beste administrazio batean dagoen dokumentazioa ez aurkezteko eskubidea kontuan hartu gabe, EEEK berraztertze-errekurtsoa argitzeko beste izapide bat egitea erabaki zuen. Izapide horretan, EEEK kexagileari eskatu zion, hamar egun balioduneko epean, DGTren bigarren txosten bat aurkez zezala, baja emandako ibilgailuaren titularra izan zela egiaztatzeko.

Aurrekarietan jasota dago eskatzaileak, EEEren errekerimendua jaso ondoren, arduraz jo zuela DGTra, administrazio horrek aurkeztu behar zuen ziurtagiria egin zezan eskatzeko.

EEERI bidalitako mezu elektronikoetan aipatzen den bezala, kexagileak hitzordua eskatu zion hurrengo egunean DGTri. Hala ere, DGTK ezin izan zuen hitzordu hori aintzat hartu 10 egun baliodunak igaro arte. Atzerapen hori zela eta, kexagileak ezin izan zuen DGTren ziurtagiria aurkeztu 2021eko azaroaren 16ra arte. Bigarren mezu elektroniko batean, eskatzaileak baldintza betetzen zuela justifikatzen zuen dokumentazio gehigarria aurkeztu zion EEERI. Nolanahi ere, ziurtagiri hori errekurtsoa ebatzi aurretik aurkeztu zen; izan ere, 2022ko urtarrilaren 3an, EEEK atzera bota zuen berraztertze errekurtsoa, alegaziorik edo dokumentazio gehigarriarik aurkeztu ez zuelako.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak - erakunde hau sortu eta arautzekoak - 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera:





GOMENDIOA:

Arartekoak Energiaren Euskal Erakundeari gomendatzen dio atzera bota dezala PAVEA 2021 espedientearen laguntza-eskaera ukatu izana eta kexagilearen eskaera aintzat har dezala; izan ere, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikulua araber, EEEK ofizioz eskatu behar zion DGTri laguntzaren eskatzailea baja emandako ibilgailuaren titularkidea zela egiaztatzen zuen ziurtagiria.

